

Mittoa, izan badena ulertzeko

Una de las expresiones más conocidas de las verdades y creencias religiosas de la Humanidad la encontramos en los mitos, es decir, en narraciones –populares o cultas– que tratan de iluminar cuestiones fundamentales como los orígenes del Cosmos y la Humanidad, las razones de los códigos de convivencia social, el futuro y destino final de los hombres, la forma en que se cree que lo sagrado se hace presente en el mundo, etc. El mito es un instrumento expresivo importante en los libros sagrados de las religiones.

Bibliak zenbait garrantzizko egia erlijioso mitokontara bidez azaldu digu, betiere testuiguru monoteista baten barnean eta gertakari intrahistorikoez ari dela: gizakiaren eta munduaren sortzea (Has 1-2), Paradisuko gertakariak (Has 3-5), Noeren eta Uholdeko gorabeherak (Has 6-9), edo Jesus Nazaretokoaren jaiotza inguruko hainbat xehetasun (Mat 1-2). Ez da hau Biblian bakarrik gertatzen; beste erlijioetako Liburuetan ere hola korik topatzen dugu.

Mitoen azalpen-modu hauek garaian garaiko eta tokian tokiko kulturen tradizioak jaso zituzten, garaiko entzule eta irakurleek aditzera eman nahi zitzaizkien mitoen erlijiosoak hobeki ulertzeko. Zer da, bada, *mitoa* deitzen dugun hori.

Hitzak bi adiera nagusi kontrajarri izan ditugure artean. Adierarik ezagunenak dio mitoa inoiz izan edo pasatu gabeko gertaeren irudimenezko kontaketa direla, hau da, zinez egondako ororen errealitate kanpo dauden asmaketak. Ez da hau hemen aintzakotzat hartzen dudana "mito" hitzaren adiera. Bigarren adiera da orain interesatzen zaiguna.

Mitook zer eta zertarako diren

Bere bigarren adieran, mitook zer diren, definizio xume batekin ager daiteke, ur handiagotan sartu gabe: Mitook historia sakratuak dira, munduaren sortzeaz, jainko, gizon eta emakumeen agertzeaz, iraganeko titan eta heroiaren balentriaz, Lur, Infernu edo Zeruen izaeraz eta mun-

duaren akaberan gertatuko denaz argibideak ematen dizkigute. Eta hori dena ulertarazteko, izan den edo izateko denaren "Bestaldeko" aurpegi sakratua erakusteko, mezu erlijiosoak aditzera emateko balio izan dute.

Mittoa ez da nahasi behar beste kontara mota batzuekin: mitoa eremutik kanpo geratzen dira, beraz, elezaharrak, fantasiazko ipuinak, alegiak edo Europa Iparraldeko sagak. Mitook nahitaezkoa du giza existentziarekiko esanahi erlijiosoak, bere egia sakratua. Kontakizun horien bidez, arrazoimen hutsez atzeman ezin dena argitu nahi du mitook.

Mitoo erlijiosoak giza belaunen katean oso urrutiko sineskizunak aurkezten dizkigu. Historia urrunetik, idazkuntza asmatu aurretik datozkigunak ere badaude gaurko mitologiaren nahiz eta zaila den halako mitoen sortzea zehazki finkatzea.

Literatura, filosofia nahiz erlijioen parte on baten oinarrietan daude mitook, eta esanahi sozial estimagarria izan dute gizartearen eta bakoitzaren bizitzan, arazo eta premia sozialei eta gizabanakoaren galdera mamitsuenei erantzuteko, etika finkatu edo heriotzaren esanahia argitzean, adibidez.

Herrietako mitologiek, beren funtsezko mezu erlijiosoak gainera, beste historia lurtarrago bat ere izan dute, noski, eta ez dira sinestuen barne-sinesmenen bakarrik geratu. Mitook beren ondorio sozialak izan dituzte, gizarteko



antolakuntza arautzeko balio izan baitute, herri txiki eta inperio handietan. Adibidez, jainko gorenarekin lotuta erakutsi zen erreinu handietako Errege eta Faraioen jatorria; mitoek balio izan dute gizarteari bere barne-batasuna emateko eta sinestunari zentzuzko bizitza eta heriotza segurtatzeko, gizakia aberasteko eta aldi berean boteredunen agintea ezartzeko.

Mitoak munduan

Herri eta kultura ezberdinetan sortutako funtsezko eta betiko giza galdera unibertsalei erantzuteko baliatu dira kontakizun mitikoak, eta herri eta kulturetan, mitoak oroigarri iraunkor gertatu dira. Ez dira, bakarrik, belaunaldi jakin baten egia eta ondarea; aitzitik, belaun batek bestera luzatu eta osatuz doazenak dira.

Balio eta mezu mitikoak herrien eta kulturen bihotzean iraun dute, belaun bakoitzak biziberritu egiten du tradizioan datorkion mitologia, nahiz eta horrek ez duen esan nahi tradizio horretan berrikuntzak eta etenak ere suertatu ohi ez direnik.

Bestalde, aldi berean indarrean leudekeen herrietako mitoek antz eta kidesan handiak erakutsi dituzte, historialariek eta antropologiek literatura zaharretatik nahiz ahozko iturrietatik jaso ahala. Gaur egun, orain ehun urte baino jakitunago gara mundu osoko mitologiak, eta era berean, bildutakoaren gain interpretazio-lan handia egin da.

Eta badago, hemen azpimarratu behar den zerbait: oinarrizko arazo berei erantzuten diete herri ezberdinetako mitologiak, eta, gainera, horretarako sarritan mito-kontakia berak errepikatu dira erlijio-kultura desberdinetan. Hortaz, mitologiak badute iturburu unibertsala dei genezakeen oinarriren bat. Nondik dator, ordea, mitologiaren unibertsaltasun hori?

Batzuetan hain urrunak diren mitologiak (Europa / Amerika / Ozeania) eta kulturaz hain ezberdinen arteko kidesasunak (Mendebalde / India / Txina) oraindik ere ez dute esplikazio argi eta erabat onarturik aurkitu jakitunen artean.

Hori ulertzeko, besteak beste, oraindik ere bere indar onean ageri da "arketipo" deitzen teoria (Jung), hau da: gizaki orok bere gogoan irudikapen mitikoak sortzeko gaitasuna izango luke, eta gaitasun horren indarrez irudimena, sentimendua eta pentsamendua, hirurak, beregan duen transzendentzia beharraren zerbitzuan jarriko lituzke. Premia bat beraren ondorioa da guztien oinarrizko batasun hori.

Gizakiaren gaitasun "arketipiko" unibertsal horrek, baina, ez ditu ukatzen kultura ezberdinetan erlijioetasunak har ditzakeen molde eta itxura bereziak, eta tokian tokiko berezitasun mitikoek beste mitologiaren izan dezaketean eragina. Munduko mitologiak "gorputz" biziak dira, denboran zehar eta geografian barrena iraun eta hedatu izan direnak, ostera ere denen artean kidesasun berriak sortuz.

Euskal mitologiak munduko gainerakoaren artean bere lekutxoa du, eta guretzat batez ere iragan belaunaldiei zor diegun begiramen bertsua merezi du. Milaka urtetan osatuz joan dira euskal mitoak, eta gure arbasoen bizitzak norabideratu ditu. Horrekin guztiarekin zer suertatu zen ulertzeko ezinbestekoa da mitoen gainazal-etik harago dagoen zoru mitikoa konprenitzea.

Antropologiak ez ezik Erlijioen Historia Konparatuak ere oso aberastu du gaur egun mitologiak dugun ezagutza. Azken buruan, herrien mitologiaren ahalegin erlijioso handi eta unibertsala dago, agian betiko funtsezko gizaera erlijiosoaren iturburutik datorrena.

Joseba Intxausti